

LAGINAREN EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2018-2019

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.a

**Amaierako txostena
2019ko uztaila**

EBALUAZIO ETA KALITATE ATALA

AURKIBIDEA

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako amaierako ebaluazioa	3
2. Ebaluazioaren oinarrizko datuak	4
2.1. Ikastetxe eta ikasleen laginaren hautaketa.....	4
2.2. Ikasle salbuetsiak, etorri ez diren ikasleak eta egokitzapenak	4
3. Neurgailuen deskribapena	6
3.1. Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia	6
3.2. Gaitasuna neurtzeko proba	6
4. Emaiza globalak	9
4.1. Batez besteko puntuazioak	9
4.2. Gaitasunen arabera errendimendu-mailak	10
5. Zenbait aldagaien arabera emaitzak	11
5.1. Generoa	12
5.2. Ikasmaita errepikatzea	13
5.3. Eskolatze goiztiarra	14
5.4. Ikaslearen jatorria	15
5.5. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)	16
5.6. Ikastetxearen titulartasuna	18
5.7. Eskola-absentismoa	22
5.8. Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo	23
5.9. Ikasleen gogobetetasuna ikastetxean	24
5.10. Baliabide teknologikoen erabilera etxeko lanetarako	25
6. Eranskinak	27
1. ERANSKINA. DBHko amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak	27
2. ERANSKINA. Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia	28
3. ERANSKINA. Probako galderen ezaugarriak	32
4. ERANSKINA. Errendimendu-mailen zenbakizko zehaztapena eta deskribapen kualitatiboa	33

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako ebaluazioa

Hezkuntza Departamentuak ezarri du laginaren ebaluazio diagnostikoa egitea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. ikasmailako ikasleei, *Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegirako presazko neurriei buruzko abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretuak* xedatzen duenari jarraikiz. Ebaluazio diagnostiko hori *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako ebaluazioko 2018-2019 ikasturterako probak arautzen dituen otsailaren 26ko EFP/195/2019 Aginduaren* arabera egingen da. Agindu horren bidez arautu ziren. Ebaluazio honek ezaugarri hauek ditu:

- Ez du ondorio akademikorik.
- Lagin baten gainean eginga da (ikastetxeen eta ikasleen laginen hautaketa behar adinakoa izanen da datu esanguratsuak lortzeko).
- Xedea da Nafarroako hezkuntza sistemaren diagnostikoa egitea.
- Gaitasun jakin baten eskuratzeko-maila ebaluatzen du.
- Ez da banakako txostenik egiten, ezta parte hartzen duten ikastetxeei buruzkorik ere.
- Zerrenda anonimo bat bidaltzen da laginean parte hartu duen ikastetxe bakoitzari ebaluatutako ikasleek lortutako emaitzekin.

Ingeleseko hizkuntza gaitasuna ebaluatuko da, eta hari esker jakiten ahalko da zein den ebaluatutako ikasleek lortutako errendimendua trebetasun hauetan: ahozkoaren ulermena (*listening*), idatziaren ulermena (*reading*) eta idazmena (*writing*).

Errendimendu proba Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu du, behar bezainbateko eskarmentu profesionala duten irakasleek, Nafarroako ikastetxeetan zerbitzu egiten ari direnek, taldeka egindako lanetik abiatuta. Proba hori ikasleen bizitzatik hurbil dauden inguruneen gainekoa da, barne direla bai egoera pertsonalak bai familia, eskola edo gizarte mailakoak, bai zientifikoak edo humanistikoak; beraz, ikasleen testuinguruko galde-sortekin batera, aukera ematen dute hezkuntza sistemaren baldintza sozioekonomiko eta kulturalen gaineko argibideak lortzeko, eskuratutako emaitzak testuinguru batean kokatu ahal izateko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako amaierako ebaluazioaren probak Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko irakasleek aplikatuko dituzte; irakasle horiek berak izan dira egindako proba guztiak aplikatu, zuzendu eta kodetu dituztenak. Beraz, ebaluazio prozesua ikastetxeetatik kanpo egin da guztiz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. ikasmailako ikasleen amaierako ebaluazioaren emaitza orokorrak aurkezten dira txosten honetan; hura 2018-2019 ikasturtean egin zen, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeen lagin batean, eta argibideak eman ditu, bai ebaluatutako gaitasunaren gaineko errendimenduari buruz, bai emaitza horiek testuinguru batean kokatzen dituzten hezkuntza sistemaren baldintza sozioekonomiko eta kulturei buruz.

2. Ebaluazioaren oinarrizko datuak

2.1. Ikastetxe eta ikasleen laginaren hautaketa

Ebaluazio eta Kalitate Atalak egin du ikastetxeen eta ikasleen laginaren hautaketa, eta behar adinakoa da Nafarroaren gaineko datu esanguratsuak lortzeko. Ausazko laginketa baten bidez egin zen, bi etapatan:

- Lehen etapan ikastetxeak hautatu ziren bi geruza ezarririk haien titulartasunaren arabera (publikoak eta itunduak) eta ikastetxearen tamainaren arabera ausazko hautaketa sistematikoa erabiliz horretarako.
- Bigarren etapan, ikastetxe bakoitzeko ikasleak hautatu dira, ikastetxe bakoitzeko ikasleen gehienez ere 3 talde osoren ausazko hautaketa.

Beraz, Nafarroan egindako laginketak datu esanguratsuak ematen ditu ikastetxearen titulartasunaren arabera, baina ez du hizkuntza ereduaren arabera datu esanguratsurik ateratzeko aukerarik ematen.

Ikerketatik kanpo gelditu ez diren ikastetxeetako matrikula datuen arabera (Educan erregistratuak, 2019ko martxoaren 20an), abiapuntua da 6439 ikasleko populazioa; haietatik, 2675 ikastetxe itunduetan ari dira eta 3764 ikastetxe publikoetan. Hortik abiatuta, abiapuntuko laginketa hau atera zen (DBHko 4.eko matrikularen %10):

Titulartasuna	Ikastetxe kopurua	Ikasle kopurua
Itundua	5	276
Publikoa	7	373
Guztira	12	649

2.2. Ikasle salbuetsiak, etorri ez diren ikasleak eta egokitzapenak

Ebaluazio orotan bezala, gerta daiteke ikasle batzuek ezintasuna izatea probak baldintza egokietan egiteko. Hori dela kausa, probetatik salbuesteko hiru arrazoi ezarri ziren:

- Hezkuntza Sisteman berandu sartu diren ikasleak, Curriculum Eguneratzeko Planean (CEP) ari direnak, curriculum atzerapen larria eta/edo eskolatze hizkuntzan (gaztelania edo, bestela, euskara) gabezia handiak badituzte.
- Proba egitea galarazten duen inguruabar iragankorra (beso hautsia edo igeltsatua, ikusmen urria, atzerriko egonaldia,...).
- Ikasleek desgaitasun psikikoa, adimenekoa, mugitzekoa edo zentzumenezkoa dutenean, edo portaeraren arazo larriak eta hezkuntza premia bereziak dituztenean, horrela erregistraturik badaude Educa kudeaketa programan, curriculum egokitzapen esanguratsuekin (CEE) ari direnean.

Irizpide horiek aplikatuta, 14 ikasle salbuetsi ziren (3 ikastetxe itunduetan eta 11 publikoetan); beraz, azken laginketan 635 ikasle gelditu ziren ebaluatzeko gai.

Aplikazioaren fasea 2019ko maiatzaren 9tik 14ra bitarte burutu zen, ikastetxe bakoitzera egun bakarrean joanez; hartan, 37 kasu erregistratu ziren informazio osorik gabe (16 ikastetxe itunduetan eta 21 ikastetxe publikoetan).

Txosten honetan agertzen diren emaitza orokorretan (estatistikoak) kontuan hartu dira probari eta testuinguruko galdera-sortari osorik erantzun zieten 598 ikasle salbuetsi gabeen datuak; horietarik, 260 ikastetxe itunduetan ari dira eta 338 ikastetxe publikoetan. Jaiste horrek erakusten du %5,8koa dela lortu gabekoaren portzentajea, planifikatutakoarekin alderatuz gero.

Estatistikaren ikuspuntutik, esan daiteke amaierako laginketa (598 ikasle azterturik) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. ikasmailako matrikularen %9,3 dela. Horrenbestez, Nafarroako hezkuntza sistemako maila horretako lagin adierazgarria da.

Azkenik, oroitarazi beharra dago aplikazio prozesuak iraun bitartean ondotik adierazten diren egokitzapen neurriak hartu zirela hezkuntza premiak dituzten ikasleendako, ikastetxeek jakinarazitako eskakizunei jarraikiz:

- Denbora luzatzea (proba egiteko epea gehienekoa da).
- Kokapen egokia ikasgelan.
- Inguru egokia (argiteria, akustika...).
- Letra tamaina handitzea.
- Egiaztatzea ikasleak ulertu dituela proba egiteko jarraibide orokorrak eta, bestela, ariketa edo ataza zehatz baten berariazko jarraibideak.
- Egiaztatzea ikasle bakoitza proba egiten ari dela arreta edo denbora gehiegi galdu gabe.
- Ahalegina sendotzea eta ziztatzea, ikaslea lagunduz ariketa edo proba egiten segi dezan eta, orobat, proba entregatu baino lehen galdera guztiak erantzun dituela gainbegiratzuz.

3. Neurgailuen deskribapena

3.1. Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia

Ebaluazioa egiten den aldi berean Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia aplikatu zen (paperean). Galdetegi hori *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako ebaluaziorako 2017-2018 ikasturterako probak arautzen dituen urtarilaren 29ko ECD/65/2018 Aginduaren II. eranskinetik hartu da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako ebaluaziorako 2018-2019 ikasturterako probak arautzen dituen 2019ko otsailaren 26ko EFP/196/2019 Aginduak ematen duen bezala. Galdetegia osatzen duten 15 galderak ikus daitezke txosten honen 2. ERANSKINEan.*

Galdetegi horri erantzunda ikasleek halako informazio bat ematen dute eta horretatik abiatutik aldagai batzuk eraiki dira, ikasleen errendimenduaren gainean zer faktorek duten eragina aztertzeko. Informazio hori osatzeko eta alderatzeko erabili dira eskola kudeaketarako Educa programan (Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren sistema informatikoa) erregistraturiko datuak.

3.2. Gaitasuna neurtzeko proba

Ebaluazioa ingelesezko hizkuntza gaitasunaren errendimenduaren azterketan ardaztu da.

Horretarako bada ebaluaziorako proba espezifiko bat. Proba hori eta hari dagokion zuzenketa-koadernoak Ebaluazio eta Kalitate Atalaren webgunean daude:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/evaluacion-y-calidad/evaluacion/evaluacion-externa/evaluacion-de-navarra>

Hona hemen **proba honen ezaugarri komunitariko batzuk**:

- Proba egiteko 50 minutu izanen dira, gehienez ere.
- Paperezko formatuan egiten da.
- Galderak gaitasunen ingurukoak dira eta zerikusia dute Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen oinarritzko curriculumari dagozkion eduki-blokeekin (1105/2014 Errege Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatean 24/2015 Foru Dekretuaren bidez garatua).
- Galdera gehienak aukera anitzekoak dira, nahiz eta badauden galdera erdi irekiak eta irekiak.

Bereziki, ingelesaren hizkuntza gaitasuna neurtzeko probaren **berariazko ezaugarriak** hauek dira:

- Guztira, 23 galdera ditu, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 41 izanik.
- Lau zati ditu: entzute ariketa (*listening*), bitan errepikatzen dena, idatziaren ulermenerako testu bat (*reading*), berridazketako proba labur bat (*rewriting*) eta idazmen proba bat (*writing*).
- Hizkuntza trebetasun horiek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barnean; hona puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazioa	Haren pisua puntuazio osoan
<i>Listening-a</i>	11	%27
<i>Reading-a</i>	12	%29
<i>Rewriting-a</i>	6	%15
<i>Writing-a</i>	12	%29
GUZTIRA	41	%100

Gainera, txosten honen 3. ERANSKINEan proba bakoitzerako argibide taula agertzen da, zeinean deskribatzen baitira **galdera bakoitzaren ondoko ezaugarriak**:

- *Tipologia*: erdi irekia/irekia edo itxia (aukera anitzekoa).
- *Erantzun zuzena* (bakarrik itxia bada).
- *Esleitutako gehieneko puntuazioa*.
- *Zailtasun indizea*: galdera bakoitzak zailtasun maila bat du, galdera hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera (erantzun zuzenen ehunekoa).
- *Diskriminazio indizea*: galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Azkenik, ebaluazio proban egindako galderen konplexutasun handiagoan edo txikiagoan oinarriturik, baita ikasleek emandako erantzunen zuzentasun mailan oinarriturik ere, identifika daitezke **gaitasunen arabera lau errendimendu-maila**. Errendimendu-mailak dira ebaluaturiko gaitasun probetan ikasle batek frogatutako ezagutza, trebetasun eta jarreraren deskribapena; labur esanda, ikasleek *egiten dakitena*.

Orokorrean, ebaluaturiko gaitasunaren garapen-gradua 4 maila hauetan banatzen da:

- **1. maila.** Gaitasuna eskuratzeko maila apalenari dagokio.
- **2. maila.** Hura deskribatzeko “gaitasunaren garapen partziala” dutela esaten da, eta hemen daude ikasteko oinarrizko tresnak dituzten ikasleak, baina, zenbaitetan aski ez direnez, halako inguruabar batzuetan emaitzak positiboak dira eta besteetan ez.
- **3. maila.** Modu honetan identifikatzen diren ikasleek errendimendu onak dituzte, eta modu autonomoan ikasteko behar diren baliabideak dauzkatenak dira.
- **3+. maila.** Ikasteko zailtasunik ez duten ikasleei dagokie. Gaitasuna bikain eskuratu duten ikasleak dira.

1. mailan *atzean gelditu diren* ikasleak sartzen dira; 1. eta 2. mailetan, batera, *gaitasun maila egokira heltzen ez diren* ikasleak; 3. eta 3+. mailetan, batera, *gaitasun maila egokira heltzen diren* ikasleak, eta 3+. mailan *bikaintasuna* erdietsi dutenak.

Gaitasun hori noraino eskuratu den modu kualitatiboan azaltzen da txosten honen 4. ERANSKINean. Errendimendu-maila bakoitzaren deskribapenean azaltzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. ikasmailako ikasleetan proba egin dutenek zer erakutsi duten egiten dakitenaz. Informazio kualitatibo horren osagarri, informazio kuantitatiboa ere ematen da, puntuazioen bidez: eten-puntu izenekoak dira; bakoitzak adierazten du halako maila batean kokaturiko ikasle batek lortu duen gutxieneko eta gehieneko puntuazioa. Informazio hori guztia, aurkezten den horretantxe, inklusiboa da, hots, gaitasun edo trebetasun bakoitzean maila bakoitzerako garatutako ikaskuntzek lehenagoko maila guztietakoak ere hartzen dituztela; hartara, ikasle bat halako maila batean kokaturik dagoenean, esan daiteke gai dela bertako trebetasunetan eta beheragoko mailetakotan ere bai.

4. Emaidza orokorrak


4.1. Batez besteko puntuazioak

Ondoko taulan agertzen dira Nafarroako DBHko 4.eko ikasleek lortutako puntuazioen estatistika nagusiak, ebaluaturiko gaitasunean:

Estatistika	Hizkuntza gaitasuna ingelesez
Gutxienekoa	2
Gehienekoa	41
Batez bestekoa	21,2809
Desb. tipikoa	9,4668
Barreiadura erlatiboa (Pearson-en BK)	0,44
Asimetria	-0,0485
Kurtosia	-1,097

Alderdi azpimarragarriak:

- Nafarroaren batez besteko puntuazio orokorra 21,3 puntukoa da (41koa da handiena). Beraz, lortutako emaitzak erakusten du hurrengo ikasturteetan hobetu beharreko alderdia dela.
- Barreiadura erlatiboak adierazten du banakako puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.
- Asimetria eta kurtosi koefizienteek zeroa hurbil dute, eta horrek adierazten du eskuratutako puntuazioen banaketaren itxura banaketa normalaren antzekoa dela (Gauss-en kanpaia). Halaxe ageri da banaka lortutako puntuazioen banaketaren hurrengo grafikoan.




4.2. Gaitasunen arabera errendimendu-mailak

3.2 atalean adierazi bezala, emaitzak lau errendimendu-mailatan banatu dira (1. maila, 2. maila, 3. maila eta 3+. maila), ebaluatutako gaitasunen garapen graduaren berri emateko.

Hurrengo orrialdeko laukian eta grafikoan agertzen da ikasleen banaketa, ebaluatutako gaitasunean lortutako mailaren arabera. Ingeleseko hizkuntza gaitasunean ikus daiteke:

- Hiru ikasleek bik baino zertxobait gutxiagok (%64,1) gaitasun maila egokia lortu dute. Beraz, DBHko 4.eko nafar ikasleek gaitasun horretan batez besteko errendimendu moderatua lortu dute. Multzo honetan, bederatzi ikasleek batek (%11,4) bikaintasun maila (3+ maila) erdietsi du.
- Hamar ikasleek batek baino zertxobait gehiagok (%10,5) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako (1. maila).
- Atzean gelditu diren ikasleen ehunekoa (%10,5) txikixeagoa da ikasle bikainena baino (%11,4). Alde hori ez da adierazgarria estatistikoki begiratuta; horrek agerian jartzen du Nafarroako hezkuntza sisteman dagoen ekitatea, baina aldi berean eginkizun uzten du ingelesean hobetu beharra dagoela hurrengo ikasturteetarako.

Ikasleen ehunekoa Nafarroan	Hizkuntza gaitasuna ingelesez
1. maila (atzean gelditu direnak)	%10,5
2. maila	%25,4
3. maila	%52,7
3.+ maila (bikainak)	%11,4
Gaitasun maila egokia lortzen duten ikasleak (N3 eta N3+ mailak)	%64,1
Gaitasun maila egokia lortzen ez duten ikasleak (N1 eta N2 mailak)	%35,9



5. Zenbait aldagairen arabera emaitzak


Ikasleen errendimenduan hainbat faktorek eragiten dute, hala ikastetxeari loturiko ezaugarriak nola ikaslearenak berak eta haren ingurune sozial, ekonomiko eta kulturalari dagozkionak.

Ondoren, ebaluatutako gaitasunaren emaitzei loturik dauden zenbait faktore jorratzen dira. Ebaluatutako gaitasunean lortutako batez besteko emaitzetan faktore horiek duten eragina aztertzen da.

Alderaketa horiek egiteko, batez besteko puntuazio **eraldatua** erabiltzen da, hau da, puntuazio zuzena eskala jarraitu batera ekartzean gelditzen dena, eskala horren batez bestekoa 500 puntukoa denean (Nafarroan ebaluatutako ikasle guztien batez besteko puntuazioa) eta desbideratze tipikoa, berriz, 100 puntukoa. Eskala horrek errazten du taldeen arteko alderaketa. Desbideratze tipikoa 100 izateak esan nahi du ikasleen bi herenek, nonbait hor, 400dik 600era bitarteko puntuazioa dutela, eta %95ek, nonbait hor, 300dik 700era bitartekoa.

Ikuspegi kuantitatibo batetik, desbideratze tipikoaren irizpidea ere erabil daiteke, gaitasun jakin batean lortutako batez besteko puntuazioaren eta Nafarroako batez bestekoaren artean dagoen aldearen garrantzia baloratzeko. Adibidez, Nafarroako desbideratze tipikoa erreferentzia gisa harturik:

- Aldea desbideratze tipikoaren 1/4 baino txikiagoa bada, arintzat har daiteke (25 puntu baino gutxiago, 500eko eskalan).
- Aldea desbideratze tipikoaren 1/4 eta 1/3 artekoa bada, moderatutzat har daiteke (25 eta 33 puntu artean, 500eko eskalan).
- Aldea desbideratze tipikoaren 1/3 baino handiagoa bada, orduan bai, handitzat har daiteke (33 puntu baino gehiago, 500eko eskalan).



Hona eraldatze hori lortzeko formula, gaitasun bakoitzaren balio berariazkoak erabiliz:

$$\text{Punt.Eraldatua} = 500 + 100 \times \left(\frac{\text{PuntZuzen} - \text{BatezBestekoa}_{\text{Nafarroa}}}{\text{DesbTip}_{\text{Nafarroa}}} \right)$$

Atal honetan faktore hauek aztertzen dira:

- Generoa
- Ikasmaila errepikatzea
- Eskolatzeko goiztiarra
- Ikaslearen jatorria
- Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)
- Ikastetxearen titulartasuna
- Eskola-absentismoa
- Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo
- Ikasleen gogobetetasuna ikastetxean
- Baliabide teknologikoen erabilera etxeko lanetarako



Aldagai horiek errendimenduaren gainean duten eraginaren interpretazioa egiteko tenorean, kontuan hartzeko gauza da azkeneko lauak ikasleen iritziz subjektiboan oinarriturik daudela.

5.1. Generoa

Generoaren arabera, DBHko 4.eko ikasleen banaketak erakusten du zertxobait gehiago direla emakumezkoak (%55) gizonezkoak baino (%45).

Emakumezkoen batez besteko emaitzak nabarmen hobeak dira ingelesezko hizkuntza gaitasunean, aldea 43 puntukoa baita. Hala ere, emakumezkoen batez besteko puntuazioa pixka bat baizik ez da Nafarroako batezbestekoa baino hobe (500dik 525 puntura bitarteko balioak).



Datozen ikasturteetan erronka izan behar luke Nafarroako hezkuntzarako generoen artean berdintasun handiagoa izatea, eta gizonezkoen artean ingelesagatiko interes handiagoa sustatu beharko litzateke.



5.2. Ikasmaita errepikatzea



Nafarroan, DBHko 4.eko ikasleen %23k noizbait ikasturtea errepikatu du.

Errepikatzaileen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko ingeles gaitasunean, errepikatu ez dutenen aldean (104 puntuko aldea). Gainera, errepikatzaileen batez besteko puntuazioak oso apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).



5.3. Eskolatze goiztiarra



Nafarroan, DBHko 4.eko ikasleen %62 goiz eskolatu zen, hots, 3 urte baino gutxiago zituela. Goiz eskolaturiko ikasleen emaitzak batez beste nabarmen hobeak dira ebaluaturiko ingeles gaitasunean, goiz eskolatu ez diren ikasleen aldean (45 puntuko aldea). Hala ere, goiz eskolaturiko ikasleen batez besteko puntuazioa pixka bat baizik ez da Nafarroako batezbestekoa baino hobe (500dik 525 puntura bitarteko balioak).



5.4. Ikaslearen jatorria

Gizarte globalizatuetan, etorkinaren izaera gero eta konplexuagoa da. Ikasle etorkinen definiziotako hau hartu dugu: Espainian jaio ez direnak eta gainera, gutxienez, aita bat edo ama bat estatu honetan jaio gabeak dituztenak. Hartara, Nafarroan, DBHko 4.eko ikasleen %12 etorkinak dira, eta %88 bertakoak.


Etorkinen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko ingeles gaitasunean, bertakoen aldean (57 puntuko alde). Gainera, etorkinen batez besteko puntuazioak oso apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).



5.5. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)

Familien maila sozioekonomiko eta kulturalaren eta ikasleen errendimenduaren arteko erlazioak hezkuntza sistemen ekitatea neurtzeko balio duela uste ohi da; izan ere, haien arteko erlazioa txikiagoa izateak berarekin ekar dezake sistema horiek hezkuntza errendimenduan neurri txikiagoan birsortzen ari direla ikasleen gizarte eta familia ingurunean dauden aldeak.

Ikasleen gizarte eta familia jatorriaren alderdi batzuk neurtzeko eraiki da Indize sozioekonomiko eta kulturala (banakako ISEK); haren bidez islatzen da gurasoen lanbidea eta hezkuntza maila, baita etxean eskura dituzten baliabideak, hala nola liburuak edo gailu digitalak. Kontuan harturik banakako ISEK, ikasleak lau "ISEK mailatan" sailkatzen dira, banakako ISEKren maiztasun-banaketaren kuartilak elkarrengandik bereizten dituzten hiru atalaren arabera. Hona zein diren maila horiek: "Apala", "Apal-Ertaina", "Ertain-Handia" eta "Handia"; horietako bakoitzean ikasleen %25 sartzen da, nonbait hor (ikus beheko grafikoa).




Hurrengo orrialdeko grafikoan hau ikusten da:

- Batez besteko emaitzetan hobekuntzarako joera garbia dago banakako ISEK maila handitu ahalean.
- Nafarroan, DBHko 4.eko ikasleen artean, ISEK maila "apala" dutenen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluatutako ingeles gaitasunean. Gainera, ISEK maila "apaleko" ikasleen batez besteko puntuazioa oso apala da Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).



- Beste muturrean, ISEK maila "handia" dutenen emaitzak nabarmen hobeak dira ebaluaturiko ingeles gaitasunean. Gainera, ISEK maila "handiko" ikasleen batez besteko puntuazioa askoz handiagoa da Nafarroako batez bestekoa baino (533 puntutik beherako balioak).

Batez besteko puntuazio eraldatuak, banakako ISEK mailaren arabera



5.6. Ikastetxearen titulartasuna

Nafarroan, DBHko 4.eko ikasleen %57 irakaskuntza publikokoak dira. Sare publikoko ikasleen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko ingeles gaitasunean, ikastetxe itunduetako ikasleen aldean. Hala ere, ikastetxe publikoetako ikasleen batez besteko puntuazioak pixka bat baizik ez dira Nafarroako batez bestekoa baino okerragoak (475etik 500 puntura bitarteko balioak).




Orri honetan agertzen dira ikasleen ezaugarriak erakusten dituzten grafikoak, non ikasten duten, ikastetxe itunduetan edo publikoetan, horren arabera. Aztertutako lau ezaugarriek alde estatistikoki esanguratsuak azaltzen dituzte ehunekoaren banaketan, ikasleak non ikasten duen, ikastetxe itunduan edo publikoan.


Ikastetxe itunduetan ikasten duten ikasleen taldean ikasle errepikatzailer gutxiago dago, modu goiztiarrean eskolatutako ikasle gehiago, bertako ikasle gehiago, banakako ISEK maila “apala” duten ikasle gutxiago eta banakako ISEK maila “handia” duten ikasle gehiago.

Titulartasunaren arabera bi ikasle taldeen ezaugarrietan dauden aldeak kontuan hartu behar dira, ikasketak non egin diren, ikastetxe itunduetan edo publikoetan, ebaluatutako gaitasun mailaren artean dauden aldeak interpretatzean.


Ikasmaita errepikatzea, ikastetxearen titulartasunaren arabera




Eskolatzte goiztiarra, ikastetxearen titulartasunaren arabera



Ikaslearen jatorria, ikastetxearen titulartasunaren arabera




Banakako ISEK maila, ikastetxearen titulartasunaren arabera.




Azkenik, ikasketak non egin diren, ikastetxe itunduetan o publikoetan, horren arabera eskuratutako gaitasun mailetan dauden aldeetan sakondu nahirik, ondotik ematen dira batez besteko puntuazio eraldatuak, ikastetxearen titulartasunaren arabera, banakako lau ISEK mailako bakoitzerako.


- **ISEK maila "apala"** duten DBHko 4.eko ikasleei dagokienez, ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ikastetxe itunduetako ikasleek batez beste puntuazio nabarmen hobea lortzen dute sare publikoko ikasleek baino.




- **ISEK maila "apal-ertaina"** duten DBHko 4.eko ikasleei dagokienez, ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ez dago alde esanguratsurik ikastetxearen titulartasunaren arabera lortutako batez besteko puntuazioetan.



- **ISEK maila "ertain-altua"** duten DBHko 4.eko ikasleei dagokienez, ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ez dago alde esanguratsurik ikastetxearen titulartasunaren arabera lortutako batez besteko puntuazioetan.





- **ISEK maila "altua"** duten DBHko 4.eko ikasleei dagokienez, ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ikastetxe itunduetako ikasleek batez beste puntuazio nabarmen hobea lortzen dute sare publikoko ikasleek baino.



5.7. Eskola-absentismoa

Nafarroan, DBHko 4.eko ikasleen gehiengo handi batek (%78ek) dio hiruhilekoan bi egun oso baino gutxiago huts egin duela eskolan justifikatu gabe. Ikasle horiek ingelesezko hizkuntza gaitasunean batez beste emaitza nabarmen hobekaitza lortzen dituzte, nahiz eta batez beste lortutako puntuazioa Nafarroako batez bestekoaren aldean zertxobait handiagoa izan (500 puntutik 525 puntu bitarteko balioak).

Beste muturrean daude 2 egun oso edo gehiago huts egin duten ikasleak (%22): horien batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ingeles gaitasunean, eta halaber batez besteko puntuazioa oso apala da, Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).




5.8. Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo

Irakastorduetatik kanpo ikasten edo etxeko lanetan emandako denborari dagokionez, Nafarroan ikasleen banaketa orekatua dago aldagaia azpibanaturik ateratzen diren bost denbora tarteetan (ikus ehunekoen banaketari buruzko grafikoa). DBHko 4. ikasmailan lau ikasletik ia hiruk (%73k) diote 3tik 12 ordura bitarte ematen dituztela astean, irakastorduetatik kanpoko etxeko lanetan.


Etxeko lanak egiten astean 3 ordu baino gutxiago erabiltzen dituzten ikasleek ingelesezko hizkuntza gaitasunean emaitza nabarmen okerragoak lortzen dituzte etxeko lanak egiten astean 3 ordu baino gehiago erabiltzen dituzten ikasleek baino. Horretaz gainera, etxeko lanak egiten astean 3 ordu baino gutxiago erabiltzen dituzten ikasleen batez besteko puntuazioak oso apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).

Bestalde, ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ikusten da batez besteko emaitzak hobetzeko joera arina etxeko lanak egiteko denbora handitu ahalean.

Banaketa, irakastorduetatik kanpo etxeko lanetan emandako denboraren arabera (ehunekoak)



Batez besteko puntuazio eraldatuak, irakastorduetatik kanpo etxeko lanetan emandako denboraren arabera



5.9. Ikasleen gogobetetasuna ikastetxean


Ikasleek ikastetxean duten gogobetetasun maila lortzen da testuinguruko galdetegiko 9. galderatik aitzina (ikus 2. ERANSKINA), non adostasun maila eskatzen baita ikastetxearekin, irakasleekin, ikaskideekin eta hartutako prestakuntzarekin ikusteko duten zazpi alderdiren gainean.

Nafarroan, DBHko 4.eko ikasleen %18k gogobetetasun maila “handia” agertzen dute; %67k, gogobetetasun maila “ertaina”, eta %16k gogobetetasun maila “apala”.


Gogobetetasun maila "handia" duten ikasleek ingelesezko hizkuntza gaitasunean batez beste emaitza nabarmen hobeak lortzen dituzte eta batez besteko puntuazioa askoz ere handiagoa da Nafarroako batez bestekoaren aldean (533 puntutik gorako balioak).

Bestalde, ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ikusten da batez besteko emaitzek hobetzeko joera dutela ikastetxearekiko gogobetetasun maila handitu ahalean.

Banaketa, ikasleek ikastetxean duten gogobetetasun mailaren arabera (ehunekoak)




Batez besteko puntuazio eraldatuak, ikasleek ikastetxean duten gogobetetasun mailaren arabera




5.10. Baliabide teknologikoen erabilera etxeko lanetarako

Etxeko lanetarako baliabide teknologikoez egiten den erabilera lortzen da testuinguruko galdetegiko 7. galderatik aitzina (ikus 2. ERANSKINA), non eskatzen baita ordenagailuaren edo tabletaren erabilerraren maiztasuna, etxeko lanetarako edo ikasteko, etxean, ikastetxean edo bestelako lekuetan. Nafarroan, DBHko 4.eko ikasleen %9k soilik “inoiz ez edo oso gutxitan” erabiltzen du teknologia etxeko lanetarako; gehienek (%63k) “batzuetan” eta %28k “maiz edo gehienetan” erabiltzen du. Ingeleseko hizkuntza gaitasunean ez dago alde esanguratsurik teknologia etxeko lanetarako erabiliz lortutako batez besteko puntuazioetan.

Banaketa, etxeko lanetarako baliabide teknologikoez egiten den erabilerraren arabera (ehunekoak)



Batez besteko puntuazio eraldatuak, etxeko lanetarako baliabide teknologikoez egiten den erabilerraren arabera



Iruña - 2019ko uztaila
Ebaluazio eta Kalitate Atala
Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua

6. Eranskinak.

1. ERANSKINA. DBHko amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak 2018-2019 ikasturtea			
Zenbakia	IKASTETXEA	UDALERRIA	TITULARTASUNA
1	C.Con. Bur. Irabia-Izaga (sede Izaga)	Burlada/Burlata	Itundua
2	C.Con. Pam. Claret Larraona	Pamplona/Iruña	
3	C.Con. Pam. Santo Tomás	Pamplona/Iruña	
4	C.Con. Tud. S. Francisco	Tudela	
5	Ik Pam. Jaso	Pamplona/Iruña	
6	IES Pam. Julio Caro Baroja	Pamplona/Iruña	Publikoa
7	IES Pam. Navarro Villoslada	Pamplona/Iruña	
8	IES Pam. Padre Moret Iribide	Pamplona/Iruña	
9	IES Tud. Benjamín	Tudela	
10	IESO Azagra Reyno de Navarra	Azagra	
11	IESO Noáin Elortzibar	Noáin (Valle De Elorz) / Noain (Elortzibar)	
12	IESO Vill. P. Atarrabia	Villava/Atarrabia	

2. ERANSKINA. Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia

IKASLEAREN INIZIALAK (letra larritz)		
1. abiz.	2. abiz.	Izena

Ikastetxea:
Ikastaldea:

IKASLEENDAKO GALDE-SORTA

Galdera-sorta honen erantzunak garrantzitsuak dira ebaluaziorako, ikaslearen hezkuntza-esperientziei eta haren familia-inguruneari buruzko informazioa zabaltzeko balio baitute.

Mesedez eskatzen dizugu egia erantzuteko, zure laguntzari esker hobeki ezagutuko dugulako eskola-egoera eta, informazio hori oinarri harturik, hura hobetzeko jarduketak proposatu ahal izanen ditugulako.

1. Neska ala mutila zara?

Neska	1
-------	---

Mutila	2
--------	---

2. Noiz jaio zinen?

Eguna:

__	__
----	----

 Hilabetea:

__	__
----	----

 Urtea:

__	__	__	__
----	----	----	----

3. Zenbat urterekin hasi zinen eskolan, haur-eskolan edo haurtzaindegian?

2 urte bete baino lehen	1
2 urterekin	2
3 urterekin	3
4 urterekin edo gehiagorekin	4

4. Zein herrialdetan jaio zara? Eta zure gurasoak?

	Ikaslea	Ama	Aita
Espainian	1	1	1
Beste batean	2	2	2
Zein?			

5. Aurtengoa barne hartuta, mailaren bat errepikatu al duzu inoiz? (Aukera ezazu laukitxo bat lerro bakoitzean).

	Ez	Bai, maila bat	Bai, bi maila
Lehen Hezkuntzan	1	2	
Bigarren Hezkuntzan	1	2	3

6. Batez beste, hiruhileko honetan zenbat egun (egun osoz) ez zara eskolara etorri justifikatu gabe? (erantzunari begira, ulertzen da egun bat sei irakastordu direla)

Bi egun baino gutxiago	1
Bi egun edo gehiago eta lau baino gutxiago	2
Lau egun edo gehiago eta sei baino gutxiago	3
Sei egun edo gehiago	4

7. Zer-nolako maiztasunez erabiltzen duzu ordenagailu edo tableta bat eskolako lanerako (etxeko lanetarako, ariketak egiteko eta ikasteko) toki hauetako bakoitzean?

	Inoiz ez edo ia inoiz ez	Batzuetan	Maiz	Egunero edo ia egunero
a. Etxean	1	2	3	4
b. Ikastetxean	1	2	3	4
c. Beste toki batean	1	2	3	4

8. Zenbat ordu ematen dituzu astean etxeko lanak egiten (ikasten edo lanak egiten) irakastorduetatik kanpo?

3 ordu baino gutxiago	1
3 eta 6 ordu artean	2
6 eta 9 ordu artean	3
9 eta 12 ordu artean	4

12 eta 15 ordu artean	5
15 eta 18 ordu artean	6
18 eta 21 ordu artean	7
21 ordutik gora	8

9. Esan ezazu noraino zauden ados zure institutuari edo ikastetxeari buruzko baieztapen hauekin
(Marka ezazu aukera bat lerro bakoitzean).

	Ez nago batere ados	Ez nago oso ados	Ados samar dago	Gutziz ados nago
a. Gustatzen zait ikastetxean egotea	1	2	3	4
b. Seguru sentitzen naiz nire ikastetxean	1	2	3	4
c. Ikastetxe honetako kide sentitzen naiz.	1	2	3	4
d. Oro har, harreman ona dut nire gelakideekin.	1	2	3	4
e. Nire ikastetxeko irakasleak zuzenak dira nirekin	1	2	3	4
f. Harro nago ikastetxe honetara natorrelako	1	2	3	4
g. Ikastetxe honetan hezkuntza ona jasotzen dut	1	2	3	4

10. Esan ezazu zer-nolako maiztasunez erabiltzen diren zure etxean honako baliabide hauek: (Marka ezazu laukitxo bat lerro bakoitzean).

	Inoiz ez edo ia inoiz ez	Hilabetean behin edo bitan	Astean behin edo bitan	Egunero edo ia egunero
a. Liburuak, irakurtzekoak (paperezkoak edo digitalak)	1	2	3	4
b. Egunkariak (paperezkoak edo digitalak)	1	2	3	4
c. Kontsulta-liburuak edo entziklopediak (paperezkoak edo digitalak)	1	2	3	4
d. Ordenagailua edo tableta	1	2	3	4
e. Internet	1	2	3	4

11. Informazio digitaleko zenbat gailu erabili ohi dira zure etxean? (Ordenagailu, tableta, smartphone, Smart TB, liburu elektroniko eta abar)

12. Zenbat jende bizi da zurekin etxean? (Zu kenduta)

13. Gutxi gorabehera, zenbat liburu daude zure etxean? (Ez sartu liburu digitalak, aldizkariak, egunkariak, ezta ikasliburuak ere).

0-10 liburu	11-50 liburu	50-100 liburu	101-200 liburu	200 liburu baino gehiago
1	2	3	4	5

14. Zein da zure amak eta zure aitak* lortu duten ikasketa-mailarik handiena? (Marka ezazu aukera bat zutabe bakoitzean. Baten bat falta bada, idatzi "Aplikaezina". Espainiako hezkuntza sisteman ikasi ez badute, marka ezazu aukera baliokidea).

	Ama	Aita
a. Ez zen eskolara joan	1	1
b. Eskolara joan zen baino ez zuen amaitu Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	2	2
c. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	3	3
d. Batxilergoa, Batxilergo Bateratu Balioaniztuna (BBB), Lehen Mailako Lanbide Heziketa (LH), Erdi Mailako LH, Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzetako Erdiko Maila, Kirol Irakaskuntzetako Erdiko Maila, Arte eta Lanbide Eskola Oinarrizkoa, Hizkuntza Eskola Ofiziala	4	4
e. Goi Mailako Lanbide Heziketa, Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzetako Goiko Maila, Kirol Irakaskuntzetako Goiko Maila	5	5
f. Unibertsitateko Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa	6	6
g. Unibertsitateko Lizentzia, Gradua, Ingeniaritza, Arkitektura, Goi Mailako Arte Irakaskuntzak	7	7
h. Unibertsitateko Masterra, Arte Irakaskuntzetako Masterra	8	8
i. Doktoregoa	9	9
j. Aplikaezina	10	10

15. Zer lanpostu motan aritzen dira ama eta aita norberaren lan-jarduera nagusian? Aitak edo amak gaur egun ez badute lan ordaindurik egiten, esan zein izan zen egin zuten azkena. (Marka ezazu bi zutabeetan bakoitzaren lan-jarduerari hobekien egokitzen den lan-kategoria. Kategoria bakoitzean hainbat adibide ikus ditzakezu, argiago ikus dezazun zein den aukerarik egokiena. Baten bat falta bada, idatzi "Aplikaezina").

	Ama	Aita
a. Ez du inoiz lan ordaindurik izan.	1	1
b. Espezializaziorik gabeko langilea. Hemen sartzen dira etxeko lanetarako laguntzaileak eta garbitzaileak, eraikinen mantentze-lanetarako langileak, mezulariak, banatzaileak, atezainak, espezializaziorik gabeko langileak nekazaritzan, arrantzan eta eraikuntzan...	2	2
c. Langile espezializatuak edo artisauak. Hemen sartzen dira igeltseroak, zurginak, iturginak, elektrikariak, gidariak, makinistak, metal arloko langileak, mekanikariak, artisauak...	3	3
d. Langile espezializatuak nekazaritzan, arrantzan eta eraikuntzan. Hemen sartzen dira nekazariak, abeltzainak, nekazaritza-eraldaketako industriako langileak, oihangintzako langileak, arrantza-industriako langileak, ehiztariak...	4	4
e. Makineriako langilea fabrika edo lantegietan. Hemen sartzen dira makineriako langileak fabrika, lantegietan edo muntaketa-kateetan, ibilgailu-motordunetako gidariak...	5	5
f. Jatetxe eta merkataritza zerbitzuetako langileak. Hemen sartzen dira ostalaritzako langileak, saltzaileak, zerbitzariak, sukaldariak...	6	6
g. Zerbitzu pertsonaletako eta babes eta segurtasuneko zerbitzuetako langileak. Hemen sartzen dira erizaintzako edo larrialdietako laguntzaileak, segurtasun zerbitzuetako langileak, oinarritzako eskaletako militarrek eta poliziak, suhiltzaileak, ile-apaindegietakoak...	7	7
h. Negozio txiki baten jabea. Hemen sartzen dira enpresa txikietako jabeak (25 langiletik beheitikoak) baita txikizkako denda, zerbitzu, jatetxe eta abarretakoak ere.	8	8
i. Administraria. Hemen sartzen dira administrazio-langileak eta kontulariak, idazkariak, datu-grabatzailak, bezeroen arretarako langileak...	9	9
j. Teknikariak edo laguntzaileak. Hemen sartzen dira teknikariak edo laguntzaileak (zientzialari, ingeniari, informatikari edo biologoenak), erizainak, finantza-teknikariak, negozio-agenteak.	10	10
k. Exekutiboa edo goi mailako funtzionarioa. Hemen sartzen dira enpresetako kudeatzaileak, hala nola, enpresa handietako (25 langile edo gehiagoko) arduradunak edo enpresa handietako departamentuetako zuzendariak, legegileak edo goi mailako funtzionarioak, interes bereziko erakundeetako funtzionarioak, armadako ofizialak...	11	11
l. Profesionalak. Hemen sartzen dira zientzialariak, matematikariak, ingeniariak, arkitektoak edo informatikariak, biologiako eta osasun arloko profesionalak, irakasleak, legeen arloko profesionalak, gizarte gaietan espezializatutako zientzialariak, kazetariak, idazleak, artistak, profesional erlijiosoa...	12	12
m. Aplikaezina.	13	13

ESKERRIK ASKO LAGUNTZEAGATIK

3. ERANSKINA. Probako puntuazioen berrikuspena

Ingelesezkotz hizkuntza gaitasunaren proba					
Galdera zenbakia	Mota	Erantzun zuzena	Puntuazioa, gehienez	Zuzen erantzundakoen ehunekoa	Diskriminazio indizea
CLI01	Erdi irekia/Irekia	----	1	%67,2	0,554
CLI02	Itxia	C	1	%57,0	0,327
CLI03	Itxia	C	1	%42,8	0,364
CLI04	Itxia	D	1	%73,9	0,540
CLI05	Itxia	A	1	%85,6	0,427
CLI06	Erdi irekia/Irekia	----	1	%47,5	0,637
CLI07	Erdi irekia/Irekia	----	1	%57,4	0,420
CLI08	Itxia	A	1	%73,7	0,499
CLI09	Erdi irekia/Irekia	----	1	%52,3	0,540
CLI10	Itxia	C	1	%69,1	0,473
CLI11	Itxia	B	1	%71,7	0,494
CLI12	Itxia	D	1	%74,2	0,398
CLI13	Itxia	B	1	%84,4	0,259
CLI14	Itxia	C	1	%32,8	0,229
CLI15	Itxia	B	1	%43,6	0,263
CLI16	Itxia	B	1	%40,3	0,466
CLI17	Erdi irekia/Irekia	----	1	%5,2	0,300
CLI18	Erdi irekia/Irekia	----	2	%53,6	0,522
CLI19	Itxia	B	1	%51,7	0,480
CLI20	Erdi irekia/Irekia	----	2	%32,6	0,621
CLI21	Itxia	D	1	%66,4	0,291
CLI22	Erdi irekia/Irekia	----	6	%41,7	0,808
CLI23	Erdi irekia/Irekia	----	12	%50,7	0,802

4. ERANSKINA. Errendimendu-mailen zenbakizko zehaztapena eta deskribapen kualitatiboa

Errendimendu-mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batera atxikitzeko beharrezkoa da maila horri dagokion puntuazio tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazten den bezala:

Ingeleseko hizkuntza gaitasuna		
	Zuzeneko puntuazioen tartea	Puntuazio eraldatuen tartea (*)
1. maila	0 – 8	360 baino gutxiago
2. maila	9 – 16	361etik 445era
3. maila	17 – 33	446tik 624ra
3.+ maila	34 – 41	624 baino gehiago

(*) **Puntuazio eraldatua** da puntuazio zuzena eskala jarraitu batera ekartzean gelditzen dena, eskala horren batez bestekoa 500 puntukoa denean (Nafarroan ebaluaturiko ikasle guztien batez besteko puntuazioa) eta desbideratze tipikoa, berriz, 100 puntukoa. Eskala horrek errazten du taldeen arteko alderaketa. Desbideratze tipikoa 100 izateak esan nahi du ikasleen bi herenek, nonbait hor, 400dik 600era bitarteko puntuazioa dutela, eta %95ek, nonbait hor, 300dik 700era bitartekoa. Hona eraldatze hori lortzeko formula, gaitasun bakoitzaren balio berariazkoak erabiliz:

$$\text{Punt.Eraldatua} = 500 + 100 \times \left(\frac{\text{PuntZuzen} - \text{BatezBestekoa}_{\text{Nafarroa}}}{\text{DesbTip}_{\text{Nafarroa}}} \right)$$

Errendimendu-mailen deskribapen kualitatiboa

Modu kualitatiboan eta orokorrean deskribatzen da gaitasunaren eskurapen gradua, hau da, maila horretan dauden ikasleek erdietsitako ikaskuntzak:

Ingeleseko hizkuntza gaitasuna		
	Gaitasunen garapena...	Deskribapena
1. maila	Apala	<u>Ahozkoaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira ahozko mezu baten zentzu orokorra hartzeko, mezu horren denborazko maiztasunak, eta nahitasuna eta oinarritzko ñabardurak identifikatzeko. Halaber, gai dira entzundako testu baten gaineko berariazko informazioa idatzizko erantzun bat baino gehiagoren artean ezagutu, erreproduzitu eta identifikatzeko. <u>Irakurriaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira testu idatzi baten zentzu orokorra harrapatu eta gai nagusia identifikatzeko, hiztegia eta oinarritzko adierazpideak eta, orobat, informazio-testuen (gutun formalak, iritzi-artikuluak) alderdirik esanguratsuenak ezagutzeko. <u>Idazmena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira irakurtzerakoan zenbait zailtasun (kaligrafia-gabezia, ezabatzeak eta/edo zirriborroak, berridazketa zenbait) dituzten testuak egiteko. Ikasleen idazkiek ez dira lexiko eta gramatika aldetik oso zuzenak, mezua komunikatzeko beharrezkoak diren egiturak ez dira erabiltzen eta akatsak orokorrak eta larriak dira, ulermena galarazteko modukoak, alegia..

Ingeleseko hizkuntza gaitasuna		
	Gaitasunen garapena...	Deskribapena
2. maila	Partziala	<u>Ahozkoaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira ahozko solasaldi bateko ideia globala ulertzeko eta xehetasunetatik bereizteko, testua osorik ulertzen ez bada ere, eta, orobat, lexiko arrunta ezagutu eta ulertzeko. <u>Irakurriaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira testu idatzi baten tipologia eta erregistroa ulertzeko, haren zati definituak identifikatzeko, informazio inplizitua eta esplizitua aurkitzeko eta, orobat, testu errazetan xehetasunak eta ñabardurak ezagutzeko. <u>Idazmena</u>: Maila honetan dauden ikasleak gai dira idazkiak letra argiz idazteko, irakurketa oztokatzen ez duten gramatikako eta puntuazioko errore batzuk baldin baditu ere. Hala ere, idazkian zenbait errore egin ditu testuaren ulermena zalantzan jartzen dituzten lokailuen eta gramatika-egituren erabileran. Ugariak dira egituren egindako akatsak, eta hiztegian zenbait erredundantzia eta errepikapen egiten ditu.
3. maila	Ona	<u>Ahozkoaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira solasaldi ez-formal bateko ideia globalak eta bigarren mailako ideiak eta haien gaineko informazio esplizitua eta inplizitua ulertzeko, testuaren xedea zein den identifikatzeko eta ahozko mezua transmititzen duen pertsonaren komunikazio-asmoa zein den ezagutzeko. Orobat, gai da terminoen esanahia testuingurutik ondorioztatzeko, hizkuntzaren gaineko ezagutzak aplikatuz, eta datu esplizituen gaineko inferentziak egiteko. <u>Irakurriaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira informazio-testu, narrazio-testu, argudio-testu eta azalpen-testu errazen komunikazio-asmo esplizitu eta inplizituak, ideia nagusiak eta ondorio nagusiak identifikatzeko, haien gaineko ñabardurak harrapatuz eta inferentzia konplexu samarrak eginez eta, orobat, testu baten zati desberdinak lotzen dituen informazioa erabiltzeko –informazioa kokapen edo konplexutasun ertainekoa izanen da–. <u>Idazmena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira egitekoari egokitutako komunikazio-balioa duten testuak egiteko. Testuaren ulermena moteltzen ez duten errore puntualak egiten ditu. Produksioa oharrei egokitzen zaie, eta informazioa koherentea eta garrantzizkoa da.
3.+ maila	Handia	<u>Ahozkoaren ulermena</u>: maila honetako ikasleak gai dira testuko zernahi puntutatik datorren informazio konplexua erabili, berriz ordenatu eta baloratzeko, ahozko mezuaren ulermen orokorretik abiatuta esanahi berriak ondorioztatzeko, mezu bat zein erregistro-motatan jaulki den eta zertarako identifikatzea, hala nola mezuaren ulermen xehakaturak. <u>Irakurriaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira literatura- eta informazio-testuen eduki orokorra testuingurutik abiatuta aztertu, kritikoki ebaluatu eta interpretatzeko, horiekin lotuta dauden alderdi soziolinguistikoak harrapatuz, eta, orobat, informazio garrantzitsua bereizi eta interpretatzeko, hizkuntzaren zorrotzasunekin, eta inferentzia konplexuak egiteko. <u>Idazmena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira komunikazio-balio osoko idazkiak argitasun eta garbitasunez idazteko, gramatikalki zuzenak izanik eta ortografia-errorrik gabe egonik. Halaber, idazkiaren informazioa garrantzizkoa eta koherentea izanen da, sekuentzia ordenatu eta egituratuekin, eta hiztegia aberatsa eta askotarikoa, formatuari eta erregistroari egokitutakoa.